

**Fiskalizazio Txostena**

**Informe de Fiscalización**

**Orozkoko Udala**

**Ayuntamiento de Orozko**

**2011**





## **AURKIBIDEA / ÍNDICE**

<b>0. LABURDURAK</b> .....	<b>5</b>
<b>I. SARRERA</b> .....	<b>7</b>
<b>II. IRITZIA</b> .....	<b>8</b>
II.1 Udala.....	8
II.1.1 Legea betetzeari buruzko iritzia.....	8
II.1.2 Urteko kontuei buruzko iritzia.....	8
II.2 Zubiaur Eraikuntzak, SA.....	9
II.2.1 Legea betetzeari buruzko iritzia.....	9
II.2.2 Urteko kontuei buruzko iritzia.....	10
<b>III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK</b> .....	<b>11</b>
III.1 Aurrekontua eta kontabilitatea.....	11
III.2 Langileria.....	12
III.3 Diru-laguntzak.....	12
III.4 Kontratazioa.....	13
III.5 Berankortasuna eta bestelako alderdiak.....	15
<b>IV. FINANTZA ANALISIA</b> .....	<b>16</b>
<b>V. URTEKO KONTUAK</b> .....	<b>19</b>
V.1 Udala.....	19
V.2 Zubiaur Eraikuntzak, SA.....	22
<b>VI. 2012-KO AURREKONTUARI JARRITAKO ALEGAZIOEN ANALISIA</b> ...	<b>23</b>
<b>ALEGAZIOAK</b> .....	<b>27</b>
<b>0. ABREVIATURAS</b> .....	<b>31</b>
<b>I. INTRODUCCIÓN</b> .....	<b>33</b>
<b>II. OPINIÓN</b> .....	<b>34</b>
II.1 Ayuntamiento.....	34
II.1.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad.....	34
II.1.2 Opinión sobre las cuentas anuales.....	34



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

II.2	Zubiaur Eraikuntzak, SA.....	35
II.2.1	Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad .....	35
II.2.2	Opinión sobre las cuentas anuales.....	36
<b>III.</b>	<b>CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN .....</b>	<b>37</b>
III.1	Presupuesto y contabilidad .....	37
III.2	Personal.....	38
III.3	Subvenciones.....	38
III.4	Contratación .....	39
III.5	Morosidad y Otros aspectos.....	41
<b>IV.</b>	<b>ANÁLISIS FINANCIERO .....</b>	<b>42</b>
<b>V.</b>	<b>CUENTAS ANUALES .....</b>	<b>45</b>
V.1	Ayuntamiento.....	45
V.2	Zubiaur Eraikuntzak, SA.....	48
<b>VI.</b>	<b>ANÁLISIS ALEGACIONES PRESUPUESTO 2012 .....</b>	<b>49</b>
<b>ANEXOS .....</b>	<b>53</b>	
A.1	Presupuesto y sus modificaciones .....	53
A.2	Impuestos, tasas y otros ingresos .....	54
A.3	Ingresos por transferencias y subvenciones .....	55
A.4	Gastos de personal .....	56
A.5	Compras de bienes corrientes y servicios e Inversiones.....	57
A.6	Transferencias y subvenciones corrientes concedidas .....	58
A.7	Pasivos financieros .....	59
A.8	Deudores y provisión insolvencias .....	60
A.9	Conciliación resultado presupuestario y patrimonial.....	61
A.10	Zubiaur Eraikuntzak, SA: existencias y otros saldos.....	61
A.11	Análisis de contratación .....	63
<b>ALEGACIONES .....</b>	<b>65</b>	



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## 0. LABURDURAK

10/2003 FA	10/2003 Foru Araua, Bizkaiko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoa.
1463/2007 ED	1463/2007 Errege Dekretua, Aurrekontuaren Egonkortasunari buruzko 18/01 Legea toki erakundeei ezarrita garatzen duen erregelamendua.
15/2010 Legea	15/2010 Legea, Merkataritzako Eragiketetan Berandutzaren Aurkako Neurriak Ezartzeko dena.
8/2010 LED	8/2010 Legegintzako Errege Dekretua, defizit publikoa murrizteko aparteko neurriak hartzen dituena.
AEFILO	2/2012 Lege Organikoa, Aurrekontuaren Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
APKLTB	-2/2000 Legegintzako Errege Dekretua, Administrazio Publikoetako Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina.
BAO	Bizkaiko Aldizkari Ofiziala.
BFA	Bizkaiko Foru Aldundia
DLO	38/2003 Lege Orokorra, Diru-laguntzei buruzkoa.
DOUE	Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala
EAAN	Estatuko Administrazioaren Artekaritza Nagusia.
EFPL	6/1989 Legea, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.
EIOZ	Eraikuntza, Instalakuntza eta Obren gaineko Zerga
HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia
LZ	Lanpostuen Zerrenda.
NLKES	Nazio eta Lurraldeko Kontuen Europako Sistema.
SPKL	30/2007 Legea, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzkoa.
TAOAL	7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituena.
TEFKZN	Toki Erakundeekiko Finantza Koordinaziorako Zuzendaritza Nagusia





## I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (aurrerantzean HKEE) otsailaren 5eko 1/1988 Legeak eta Epaitegiaren Osokoak onetsitako Lan Programak agindutakoari jarraiki, Orozkoko Udalaren eta Zubiaur Eraikuntzak, SA bere Sozietate Publikoaren 2011ko Kontu Orokorraren fiskalizazio lana mamitu du.

Fiskalizazio lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezketasuna: Honako aurrekontuaren atal hauetan ezargarria den arautegia bete izana: aurrekontua, zuzenbide publikoko sarrerak, zorpetzea eta finantza eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak eta diru-laguntzen emakida.
- Kontabilitatea: Kontu Orokorra ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datorrela egiaztatzea. Kontu Orokorrak honako atal hauek besarkatzen ditu: Udalaren eta udal sozietate publikoaren egoeraren balantzea, galera-irabazien kontua, oroitidazkia eta aurrekontuen likidazioa.
- Bestelako alderdiak: Lanaren zabalak ez du gastuaren eraginkortasun eta efizientziari buruzko azterlan berriazkorik besarkatu; ezta, Udalaren eta bere Sozietatearen kudeaketa prozedurei buruzkorik ere. Nolanahi den ere, fiskalizazioan zehar sortu diren alderdi partzialak txosten honen III. idazpuruan aztertu ditugu.
- Udalaren egoera ekonomikoaren finantza analisia.

Honez gain, Udalbatzak HKEEri 2012ko aurrekontuaren gainean egindako alegazioei buruzko iritzia eman zezan eskatu zion, txosten honen VI. atalean aztergai direnak.

Orozkoko Udalak 2.451 biztanle zituen 2011ko urtarrilaren 1ean eta bere egiturari Zubiaur Eraikuntzak, SA (% 100) Sozietate Publikoa jasotzen du, etxebizitzak eta lokalak eraiki eta sustatzera emana. Estatutuak 1993z gerokoak dira eta Batzorde Orokorrak, Udalbatzaz osatua, Administrazio Kontseiluaren kideak izendatzen ditu, gehienera 5 pertsonak osatzen dutena; kontseilarien herena zinegotziak dira. Udala Gorbeialde Nekazal Garapenerako Elkartearen eta Aiaratur Elkartearen partaide da eta Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabal, SLn %11ko partaidetza du.



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## II. IRITZIA

### II.1 UDALA

#### II.1.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

##### LANGILERIA

1. Udalak ez die langileei 8/2010 LEDen defizit publikoa murrizteko aparteko neurri modura ezarritako ordainsarien murrizketa aplikatu, 2010eko ekainaren 1etik aurrera ezargarria dena, 2011n soldata masa murriztera eta soldata izoztera mugatuz (ikus A.4).

##### KONTRATAZIOA

2. Gaztetxoko gazteen gunea eta Gazteplana kudeatzeko kontratua 2005ean esleitu zen eta iraungia dago araudiak ezartzen dituen gehiengo epeak gaintitzeagatik (APKLTBren 198. art.); alabaina, 2011n egikaritzen jarraitu du 74.009 euroren gastuarekin. Kopurua aintzat hartuta esleipena publikotasun eta lehia bidez gauzatu behar da (ikus A.11 eranskina).

Epaitegi honen ustetan, Orozkoko Udalak, aurreko 1etik 2ra bitarteko paragrafoetan jasotako ez-betetzeak alde batera, zuzentasunez bete du 2011ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jardura arautzen duen lege arautegia.

#### II.1.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

Aurrekontu likidazioaren sarreren 4. kapituluak itunpeko zergetan (Udalkutxa) parte-hartzeagatik diru-sarrerak barne hartzen ditu; eskubide horiek 1,7 milioi eurorenak dira eta 2011ko ekitaldiaren azken kitapenaren kontura egindako emakidei dagozkie, erregistratzeko dagoela ekitaldi horren kitapen negatiboa, 77.367 eurorena, zeina BFAREN 2012ko martxoaren 20ko erabaki bitartez 2012, 2013 eta 2014ko urteetan itzuliko den. 2009ko likidazio negatiboak 101.112 euroren beherapenak ekarri zituen 2011ko konturako entregetan eta 2011ko abenduaren 31n ordaintzeko daude euro. 2011ko abenduaren 31n bi kitapenen kontzeptuan ordaintzeko dagoen saldoa, honenbestez, 269.710 eurorena zen (ikus A.3 eranskina).

1. Udalak ez du Egoera Balantzearen ibilgetu material, ez-material eta finantzarioaren saldoen xehapenik eta honenbestez, ezin egiaztatu izan da 2011ko abenduaren 31ko ondasun eta eskubideen egiazko egoera islatzen duen. Udalak ez du inongo gasturik erregistratzen ibilgetu material eta ez-materialaren amortizazio kontzeptuan.
2. Hona hemen Orozkoko Udalaren 2011ko abenduaren 31n gastu orokorretarako Diruzaintza Geldikinean, data horretan itxitako Egoera Balantzean eta Funtz Propioetan eragina duten doiketak:





Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

KONTZEPTUA	Euroak milakotan			
	_AURREKONTUKOA_		_ONDAREKOA_	
	DIRUZAINZA GELDIKINA	AKTIBOA	PASIBOA	FUNTS PROPIOAK
<b>11.12.31n sortutako eta erregistratu gabeko eskubideak</b>				
A. 2 Ur hornidura, estolderia, zabor eta bide publikoa okup. tasak .....	-	88	-	88
A. 2 Andra Mari egoitza erabiltzeko lagapenaren kanon geroratua.....	-	121	-	121
<b>Gastuak, zorpetu eta 2011.12.31n erregistratu gabeak</b>				
A. 3 Itunpeko zergetan partaidetza: 2009 eta 2011ko likidazioak .....	-	-	270	(270)
A. 8 2011.12.31n kaudimen-gabeziatarako zuzkiduraren gutxiegitasuna.....	(98)	(98)	-	(98)
<b>Beste batzuk</b>				
A.3 Pasabidearen diru-lag. finantzaketaren desbideratzea.....	(29)	(29)	-	(29)
<b>UDALA GUZTIRA</b>	<b>(127)</b>	<b>82</b>	<b>270</b>	<b>(188)</b>

Epaitegi honen iritzira, 1. eta 2. paragrafoetan adierazitako salbuespenak alde batera, Orozkoko Udalaren Urteko Kontuek alderdi esanguratsu guztietan 2011ko ekitaldiaren aurrekontu ekitaldiaren jarduera ekonomikoa erakusten dute, ondarearen eta 2011ko abenduaren 31n finantza egoeraren isla leiala eta data horretan amaitutako urteko ekitaldian zehar bere eragiketen emaitzena.

## II.2 ZUBIAUR ERAIKUNTZAK, SA

### II.2.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

1. Hegoalde sektorean 80 etxebizitza eraikitzeko obra administrazio kontseiluak 2010eko uztailan esleitu zuen 7,9 milioi euroren zenbatekoan. Alabaina, lehendakariak hurrengo hilabetean izenpetutako kontratuak 54ra murriztu zuen eraiki beharreko etxebizitza kopurua, gainerako 26ak epe mugagabearekin atzeratuz; horretarako, lehiaren xedea aldatu zuen, Kontseiluaren nahitaezko baimenik gabe. Nahiz pleguetan zehazten zen kontratuaren prezioa oroharrekoa eta itxia zela, izenpetutako kontratuak zioen eskainitako aleko prezioak ezarriko zirela; ez zuen, baina, aleko prezio horiek ezartzetik eratorritako prezioa zein zen zehazten. Jokamolde horiek pleguetan jasotakoaren eta esleipenaren aurkakoak dira eta honenbestez, beste espediente bat abiarazi behar zatekeen (C hutsa A.11n).

Epaitegi honen iritzira, Zubiaur Eraikuntzak, SAK, aurreko paragrafoan zehaztutako ez-betetzea alde batera, zuzentasunez bete du 2011ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## II.2.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

- 2012an zehar abian zen sustapen bakarra osatu zen, eraikitako 54 etxebizitzatetik 44ren salmenta gauzatu zela. Etxebizitza horien salmenta kontularitzan duten kostuaren pareko prezioarekin gauzatu da. Gainerako 10 etxebizitzaren eta beste higiezin eta orubeen kostua 2011ko abenduaren 31n, 5,3 milioi eurorena izan zen. Higiezinaren merkatuak bizi duen egoera aintzat hartuta, zalantza dago txosten hau idatzi dugun datan saldu gabe zeuden izakinen gauzatze balioari dagokionez (ikus A.10 eranskina).
- 2011ko abenduaren 31n Zubiaur Eraikuntzak, SAREN egoera balantzea eta funts propioak eragiten dituzten doikuntzak honako hauek dira:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan		
	BALANTZEA		FUNTS
	AKTIBOA	PASIBOA	PROPIOAK
A.10 2011ko abenduko obrak egiaztatzea erregistrorik gabe .....	454	454	-
A.10 Hirigintza kuoten operatibako saldoak erregularizatzea .....	(588)	(636)	48
A.10 Hirigintza kuoten esleipen eta azken kuotaren arteko aldeak.....	121	121	-
<b>SOZIJATE PUBLIKOA GUZTIRA</b>	<b>(13)</b>	<b>(61)</b>	<b>48</b>

Epaitegi honen iritzira, 1. paragrafoan adierazitako zalantzak izan dezakeen eragina eta 2. paragrafoko salbuespena alde batera, Zubiaur Eraikuntzak, SAREN Urteko Kontuek alderdi esanguratsu guztietan 2011ko ekitaldiaren aurrekontu ekitaldiaren jarduera ekonomikoa erakusten dute, 2011ko abenduaren 31n ondarearen eta finantza egoeraren isla leiala eta ekitaldian zehar bere eragiketena.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

### III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan ekonomia-finantza jarduera arautzen duten printzipioak gehiegi eragiten ez dituzten akatsak ez ezik, kudeaketa hobetzeko azpimarratu nahi diren prozedurazko alderdiak ere azaleratu dira.

#### III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

- 2011ko aurrekontuen egikaritzara arauak aurrekontu egiten den ekitaldiari dagokionez, bermeak emateko eta zorpetzearen mugak adierazi behar lituzke, bai Udalean bai Sozietate Publikoan ere, Osokoak 2010eko otsailan emandako baimena baitetsi edo aldatuz. Sozietatearen aurrekontuak zorpetzeari buruzko eranskina eta konpromiso kredituen egoera barne hartu behar lituzke eta aurrekontuko egiturara aldatzean, maileguak hartu behar ziratekeen aintzat (10/2003 F Aren 6, 14 eta 22. artikulua). Gainera, Sozietate Publikoaren aurrekontua ez zuen administrazio kontseiluak onartu.
- Udalaren Osokoak 30.000 euroren kreditu osagarriak onartu zituen, baina ez zuen horren berri eman lurraldeko aldizkari ofizialean (10/2003 F Aren 34.3 art.).
- Aurrekontua egikaritzeko arauak kasu jakinetan eta 3.100 euroren azpitiko erosketetan ADO faseak metatzea aurreikusten du. Kopuru horren gainetiko erosketei dagokienez, gastu proposamen bat onartzea aurreikusten du, gastuaren erabilera modura erregistratu behar zatekeena (D fasea). Aurrekontu erabilgarria hobeto kontrolatzeko bide emango zukeen jokamolde hau ez da gauzatu fiskalizazio-gai izan den urtean.
- Foru Aldundiak 2010ean Sozietate Publikoari baimena eman zion 19 milioi euroren zenbateko zorra hartzeko, babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzea xede zuena. Urte horretan 5,5 milioi euroren mailegua kontratatu zen eta 2011n 4,8 milioi euroren beste bat, jakinarazi behar zatekeena aipatutako baimenak eta babes finantzarioko araudiak halaxe eskatzen zutelako (ikus A.7).
- Aurrekontuz kanpoko saldo nagusiak Udalak egindako urbanizazio gastuetan dute sorrera, gero Udalak jabeen eragiten dizkietenak. Egokiagoa litzateke jarduera mota hau aurrekontuan jasotzea, kreditua jaulkitako urbanizazio kuotekin gaituz. 124.590 euroren saldoa, handiena, argindar sarea bideratzeko faktura batek sortu du, sektoreko jabeen eragin ez zaiena, instalakuntza berria erabat abian jarri ezin izan delako.
- Udalak epe luzeko zordun modura erregistratu behar luke 1,6 milioi euroren zenbatekoa, izan ere, Sozietate Publikoari lursail bat saltzeko kontratuaren arabera, Sozietateak lursail horretan egiten ari diren etxebizitzak sustapena amaitu ostean ordainduko dio kopuru hori Udalari. Erregistroa eza honek ez du zerikusirik dagokion hornidura zuzkitzeko beharrezkin, Sozietate Publikoa eragiten duen egungo higiezinaren merkatu egoerari jarraiki.



### III.2 LANGILERIA

- Aurrekontu plantilak erakusten du lau lanpostutan dedikazio berezia dela eta osagarriak jasotzen direla, horien zenbatekoa zehaztu gabe (EFPLren 21. art.).
- 2011ko abenduaren 31n indarrean zeuden 2004 eta 2007an abiarazitako aldi baterako bi obra kontratu. Kontratuen iraupenak adierazten du garatutako egitekoek iraunkortasun izaera dutela eta honenbestez, zuzendu egin behar da horien egoera.
- Udalak eta Sozietate Publikoak ez zizkioten Foru Ogasunari aitortu zinegotzi eta kontseilariari bileretan esku hartzeagatik ordaindutako dietak, hurrenez hurren, 39.780 eta 1.983 euroren zenbatekoan 20 hartzailerik emanak. Zinegotzietatik dietak bileretan esku hartu edo ez berdin ordaindu zitzaizkien. Gainera, zinegotzien hartzekoak finkatzen dituzten udalbatzetako erabakiak argitaratu egin behar ziratekeen (TAOALen 75.5 art.) eta ez du hori bete Udalak.
- Sozietate Publikoaren Administrazio Kontseiluak 2007an lehendakariari dieta kontzeptuan hilerokoa 1.030 euroren ordainketa egitea erabaki zuen; ordea, kopuru hori finkoa eta hilerokoa izatea TEAFen 13. artikuluan izaera orokorrarekin zerbitzuagatik kalte-ordain gaitan ezargarriak diren zorpetze eta justifikazio arauen aurkakoa da. Zenbateko horiek ordaintzeari 2011ko uztailean utzi zitzaion.

### III.3 DIRU-LAGUNTZAK

- Kultur eta kirol jardueretarako diru-laguntzen ordenantza 2000. urtekoa da eta Udalak DLoren aginduetara egokitu beharko luke. Ordenantzak hainbat irizpide ematen ditu (8. art.) eskabideak balio-neurtzeko, barematu gabe. Berebat, 2011ko apirilko ebazpenak ere (urteko programak) ez du irizpide bakoitzari emandako balorazioa zehazten. Komeniko litzateke urteko deialdia egitea, eskabideak aurkezteko epeak adieraziaz.
- Herriko jaiak bertako elkarte batek antolatzen ditu, 2011n 90.000 euroren diru-laguntza jaso zuena. Aurkeztutako egiaztagirian, gastuen % 36 fakturen legezko betekizunak betetzen ez dituzten agiriak dira, diru-laguntzen araudia eta udal ordenantza bera urratuz (13.b art.).
- Itxina Abeltzainen Elkarteari emandako diru-laguntza nominatiboa, 6.000 eurorena, dagokion emakida hitzarmen edo dekretuan norakoa adierazi gabe ordaindu zen. 2007an Udalak 25 urtetarako kontzesioan eman zituen udal mendietako 1.438 hektarea eta Elkarteak ordainetan urteko kanon bat ordaindu behar zuen, hasiera batean 6.219 euroan ezarri zena. Gainera, elkarteak herri-mendietan larreak erabiltzeagatik 10.117 euroren udal tasa jasotzen du. Kudeatutako funtsen tamainak eta kudeatzen dituen ondasun eta tasek udal jabetzak gomendagarri egiten du nahitaezko hitzarmenean hainbatean behin informazio igorpena arautzea.
- 2011n jarduerak garatzeko bost talde politikoei izendatutako 18.260 euroak gastuen 2. kapituluaren erregistratzen dira, zinegotzientzako dietekin batera; alabaina, egokiagoa da diru-laguntza modura erregistratu eta horien jardun-moldea arautzea.



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

- Arautegiak agintzen du iragarki oholean argitaratu behar direla diru-laguntzen emakida ebazpenak, banako laguntzak 3.000 eurotik gorakoak direnean (DLoren 18. art.); Udalak ez du betekizun hori betetzen.

### III.4 KONTRATAZIOA

Indarrean zeuden edo 2011n izapidetutako 6 kontratu nagusiak aztertu ondoren, honako alderdi hauek azalerratu zaizkigu (ikus A.11):

- Aztertutako 6 kontratuen pleguek irizpide orokor zehaztugabeak barne hartzen zituzten eta/edo balioztatzeakoak ziren alderdi zehatz eta objektibagarriak zehaztu gabe, ez eta baliatu beharreko haztapen sistema ere. Bost kasutan hobekuntzak aintzat hartzen dira zein alderditan egin zitezkeen zehaztu gabe, ez eta balorazio sistema ere. Zenbaitetan eraikuntza proiektuari edo eman beharreko zerbitzuari buruzko memoria egitea ere balioztatzen da, balioztatuko diren alderdi zehatzak xehatu eta barematu gabe (A1 akatsa).
- Hiru zerbitzu-kontratuen pleguek (1, 2 eta 5 zenbakiak), 1,6 milioi euroan esleitutakoak eta aleko prezioetan esleitutako batek, esleipen irizpide modura kontratatu beharreko zerbitzuaren funtzionaltasunekin loturarik ez zuten alderdiak balioztatzen zituzten, hala nola, udalerriko langabetuak kontratatzea, lehiatzaileek kalitate ziurtagiriak izatea edota enpresaren eskarmentua (A2 akatsa).
- 1 eta 2 zenbakiko kontratuentzat ezarritako iraupena, 1,3 milioi euroan esleitutakoak, zerbitzu kontratuetarako araudiak aurreikusten duen lau urteko gehiengo epea gainditzen zuen (A3 akatsa).
- 1 zenbakiko kontratuaren pleguak, 1,1 milioi euroan esleitutakoa, ez zuen lizitazio aurrekontua adierazten (A4 akatsa).
- Kontratazio arautegiak aurreikusten du Idazkari-Artekariak pleguen legezotasunari buruzko txostena egin behar duela eta krediturik badela eta esleipen prozesua baliozkoa dela egiaztatu behar duela. Udalaren 5 espedienteetan ez zen erasota utzi esleipenaren fiskalizazioa; gainera, 1 eta 3 zenbakiko espedienteetan pleguei buruzko txostena falta zen eta ez zegoen krediturik bazelako ziurtagiririk lehenengo espedienteetan. Nahiz gaitutako funtzionarioak kontratazio prozesuetan parte hartzen duen, berariaz utzi behar da erasota (A5 akatsa).
- Lau urtetik gorako iraupena duten kontratuak Udalbatzak esleitu behar ditu. Aurreko epea gainditzen duten 1 eta 3 zenbakiko kontratuak, hurrenez hurren, 1,1 milioi euroan eta aleko prezioetan esleitu zituen Gobernu Batzordeak (B1 akatsa).
- 5 zenbakiko kontratuan -359.687 euroan esleitu zena- balio-judizioa eskatzen zuten alderdiei buruz egindako txosten teknikoak ez ditu emandako puntuazioak arrazoitzen (B2 akatsa).
- Udalak lehiatzaileei esleipenak jakinarazi zizkien, baina ez zien publikotasunik eman aldizkari ofizialetan 3 espedienteri (1etik 3rako zk.), 1,3 milioi euroan eta aleko prezioetan esleipena egiten zutenak (B3 akatsa).

- Bi zerbitzu kontratuen prestazioak (1 eta 2 zk.), 1,3 milioi euroan esleitu zirenak, aldatu egin ziren zegokion kontratu agiri bidez jaso gabe, bermeak areagotu gabe eta bigarren espedientearen aldaketak onartzen dituen ebazpena jaso gabe. Urteko luzapenak ere ez dira formalki ebazpen bidez onartu (B4 akatsa).
- Udalaren bi obra kontratutan (4 eta 5 zk.), 445.197 euroan esleitutakoak, azken ziurtagiriak esleipen zenbatekoa % 13 eta % 22 gainditu zuen, obra unitate berriak barne hartu zirelako; ordea, egikaritza alde aurretik izapidetu behar zatekeen, dagokion nahitazko aldaketa espedientea izapidetuz (B5 akatsa).
- Lorategi kontratuak egin beharreko hainbat lan eta horien maiztasuna zehazten ditu eta zerbitzuarentzat prezio borobil bakarra aurreikusten du. Gainera, esleipendunak hainbat egitekoetarako aleko prezioak eskaini zituen (sega eta landaketa); ez zaizkie, baina, kontratuari egindako bi aldaketei ezarri, zeinen prezioa ere oroharreko prezioan ezarri zen. Etorkezunean egiten diren esleipenei dagokienez, aleko prezioak ezarri behar lirateke kontrataturiko zerbitzua osatzen duten egiteko nagusienentzat (C akatsa).
- Zaharrentzako egoitza eta eguneko zentroa erabili eta kudeatzeko kontratuak honako plaza hauek izatea aurreikusten du: Aldundiarekin itundutako plazak (27), udal plazak (4) eta pribatu izeneko plazak (12), kontratuaren esleipendunaren eskura. Kontratuak Udalari foru eta udal plazak esleipen prezioan fakturatzea aurreikusten du, bai betetzen badira, bai betetzen ez badira ere. Aldundiarekiko hitzarmenak urtekoak dira, nahiz eta plaza kopuruan ez den kontratatu direnekiko aldaketarik izan, eta Udalak bere plazak esleipendunari laga dizkio, okupazio arazorik mahairatu gabe. Egungo kontratua iraungitzeaz dela, komenigarria litzateke egoera berriz aztertu eta Udalak okupazio txikiko kasuetarako konpromisoak urritzeta. Gainera, esan behar da udal zerbitzuaren ordenantzak (2006) egoitza plazak soilik aipatzen dituela, eguneko zentrokoei erreferentziarik egin gabe. Azkenik, nahiz kontratuak luzapen automatikoak aurreikusten dituen, luzatzeko ebazpen berariazkoak eskatu behar dira (C akatsa).
- Prezioa faktorea balioztatzeko 5 zk. kontratuan baliatutako formulak (puntuazio osoaren % 59) eskaintza merkeenak zigortzen ditu (SPKLren 134 eta 135 art.). Bestetik azpimarratu behar da Udalak ez duela obra proiektuen nahitazko ikuskapena egiten (SPKLren 109. art.) (C akatsa).
- 6 zenbakiko kontratua esleitzeko prozesuan, balio-judizioa eskatzen zuten faktoreak formula bidez balioztatzen ziren haiekin batera balioztatu ziren; ordea, arautegiak azken hauek gerora balioztatu behar direla agintzen du. Honela, bada, formula bidez balioztaturiko faktoreetan 15 lehiatzaileek antzeko balorazioak eskuratu zituzten. (C akatsa).



Erosketa txiki modura izapidetutako erosketak aztertzerakoan ikusi dugu 4 kontratugilek emandako beste hainbeste zerbitzu, guztira 180.913 euroan, publikotasunik gabeko prozedura negoziatu bidez izapidetu behar ziratekeela, horien urteko kostua aintzat hartuta. Gainera, 2011n 31.774 euroren kostua izan zuten aseguru polizak ere prozedura negoziatuaren arabera esleitu behar ziratekeen (ikus A.11).

### III.5 BERANKORTASUNA ETA BESTELAKO ALDERDIAK

- Udalak 2011n zehar aztertu ditugun kontratazio espedienteen egikaritzan 50 eguneko epea urratu du (SPKLren 200.4 art. eta 8. xedapen iragankorra) 813.107 euroren ordainketetan, aztertutakoen % 73, alegia. Ordainketa epeak betetzeari dagokionez Idazkari-Artekariak ez zituen nahitaezkoak diren hiruhileko txostenak egin Udalbatzarentzat (15/2010 Legearen 4.3 artikulua). Zubiaur Eraikuntzak, SAn kontratu nagusiaren ordainketak aztertu dira eta sozietate publiko honi ezargarria zaion ordainketa-epe orokorrarekiko (85 egun) kasu batean 9 eguneko atzeraldia egon dela ikusi dugu 182.811 euro ordaintzean, aztertu ditugun ordainketen % 5a egiten duena.
- Udalerrian garrantzitsuak dira berariazko katastro-balioztatzeak behar dituzten jarduerak (harrobiak eta autobidea) eta komenigarria litzateke udal administrazioak horiek egiaztatzea.
- Udalak modu iraunkorrean darabiltza Sozietate Publikoarenak diren aretoak, dagokion alokairu kontratua gauzatu gabe; komenigarria litzateke egoera erregularizatzeko kontratuak egitea. Lokal horiek sozietatearen ibilgetuan Higiezinaren inbertsio modura erregistratu behar lirateke.
- Udalak 2011ko azaroan derrigorrezko diru-bilketari eta zergen ikuskaritzari laguntza emateko zerbitzua kontratatu zuen; komenigarria litzateke kontratu horretan barne hartutako prestazioen egikaritzaren jarraipena egitea, enpresa esleipendunak agintea baliatzea eskatzen duten jarduerak garatzea saihestearren.



#### IV. FINANTZA ANALISIA

Udalak azken ekitaldietan likidatutako magnitude nagusien bilakaera ondoko taulan dago zehaztua.

FINANTZA ANALISIA	Euroak milakotan			Euroak biztanleko		
	Urtea			Urtea		
	09(*)	10(*)	11	09	10	11
Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak (1, 2 eta 3 kap.).....	1.313	1.431	1.331	545	595	543
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak (4. kap.).....	2.628	2.542	2.591	1.091	1.057	1.057
Ondare sarrerak (5. kap.).....	16	11	6	7	5	2
<b>A. Diru-sarrera arruntak .....</b>	<b>3.957</b>	<b>3.984</b>	<b>3.928</b>	<b>1.643</b>	<b>1.657</b>	<b>1.602</b>
Langile gastuak (1.kap.).....	865	865	835	359	360	341
Ondasun arrunten erosketak eta zerbitzuak (2. kap.).....	2.498	2.623	2.513	1.037	1.091	1.025
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak (4. kap.).....	307	230	254	127	96	104
<b>B. Funtzionamendu gastuak .....</b>	<b>3.670</b>	<b>3.718</b>	<b>3.602</b>	<b>1.523</b>	<b>1.547</b>	<b>1.470</b>
<b>Aurrezki gordina (A-B) .....</b>	<b>287</b>	<b>266</b>	<b>326</b>	<b>120</b>	<b>110</b>	<b>132</b>
- Finantza gastuak (3. kap.).....	14	21	7	6	9	3
<b>Emaitza arrunta .....</b>	<b>273</b>	<b>245</b>	<b>319</b>	<b>114</b>	<b>101</b>	<b>129</b>
-Maileguen amortizazioa (9. kap.).....	78	84	83	32	35	34
<b>Aurrezki garbia .....</b>	<b>195</b>	<b>161</b>	<b>236</b>	<b>82</b>	<b>66</b>	<b>95</b>
Inbertsio errealeen besterentzea (6. kap.).....	1.346	1.648	-	559	685	-
Jasotako kapital diru-laguntzak (7. kap.).....	2.142	2.042	192	889	849	78
- Inbertsio errealak (6. kap.).....	2.836	3.874	565	1.177	1.611	231
- Kapital transf. eta diru-lag. (7. kap.).....	-	-	-	-	-	-
<b>Kapitaleko eragiketen emaitza.....</b>	<b>652</b>	<b>(184)</b>	<b>(373)</b>	<b>271</b>	<b>(77)</b>	<b>(153)</b>
Eragiketa ez finantzarioen emaitza (1etik 7rako kap.).....	925	61	(54)	385	24	(24)
Diruzaintza Geldikin Likidoa .....	801	437	272	333	182	111
<b>Zorpetzea .....</b>	<b>572</b>	<b>489</b>	<b>405</b>	<b>237</b>	<b>203</b>	<b>165</b>

(\*) HKEEK fiskalizatu gabeko datuak.

**Sarrera arruntak:** Osotasunean, ez dute aldaketarik izan 2009koarekiko eta gorakada txiki bat erakutsi dute. Osagai nagusiei dagokienez:

- **Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak:** Zerga eta udal tasen tarifek ez dute aldaketa adierazgarririk izan aztertutako aldiaren. 2010eko igoera EIOZk eragin du, Hegoalde sektorean sortutako diru-sarreraren ondorioz.
- **Transferentzia eta diru-laguntza arruntak:** Osagairik adierazgarriena Udalkutxa da, zeinaren epealdiko lehenengo diru-sarrerak 2008ko likidazio negatiboen eragina nozitu zuten. 2010ean nabarmen urritu ziren konturako entregak eta 2011ko igoera txikiagotu egin zen 2009ko likidazio negatiboa itzultzeko beherapenei ekin zitzaizenean. Beste osagai





Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

garrantzitsu bat zaharren egoitzan itundutako plazen kontzeptuan emandako foru diru-laguntzak dira; horko plaza kopurua, 27 plaza, ez da aldatu urteko hitzarmenetan.

**Funtzionamendu gastuak:** % 1,9 egin dute behera 2009koarekiko eta 2010ean igoera txiki bat izan dute. Hona hemen bariazio nagusiak:

- **Langile gastuak:** Bere horretan eutsi diote epealdian eta hirurtekoan baja izan diren bi langilek berdindu egin dute 2010eko soldata igoera (% 1,8).
- **Ondasun arrunten erosketak eta zerbitzuak:** Berebat, azpikontratatu diren zenbait zerbitzutan egin beharreko prezio berrikusteak berrikuste, ez dute bariazio esanguratsurik izan, mantentze eta beste hainbat ataletan murrizketak eginez berdindu direnak.
- **Transferentzia eta diru-laguntza arruntak:** % 17 egin dute behera 2009arekiko eta hauek egin dute aldaketarik handiena funtzionamendu gastuen artean.

**Aurrezki gordina eta garbia:** Magnitude hauek gora egin dute hirurtekoan, baina bariazioak termino absolutuetan ez dira esanguratsuak. 2011n eskuratutako aurrezki gordinak sarrera arrunten % 8 egiten du eta finantza zama sarrera horien % 2 da; honenbestez, aurrezki garbia sarrera arrunten % 6an dago, 2011n 236.007 euroren balio absolutua izan duena, inbertsio mugatuak finantzatzeko bide emanez.

**Kapital eragiketen emaitza:** Azpimarratzekoa da 2011n inbertsioei eutsi izana, aurreko biurtekoan inbertsioen bolumen handiaren aldean; % 62an diru-laguntza bidez finantzatu dira. 6. kapituluko diru-sarrerak Hegoalde sektoreko lursailak Udalaren Sozietate Publikoari saltzetik eskuratutakoak dira.

**Eragiketa ez finantzarioen emaitza:** Aztergai izan dugun aldiaren saldo positiboak erakutsi ditu, 2011n desoreka txiki bat gertatu dela.

**Diruzaintza geldikina:** Hirurtekoaren lehenengo bi urteetan Sozietate Publikoari lursailak saldu izanak 2009an geldikinak sortu ditu, ondoko urteetan inbertsioak finantzatzeko erabili izanaren ondorioz murriztu direnak; honela, bada, epealdiaren amaieran kopuru txikia geratu da, sarrera arrunten % 7 baizik egin ez duena.

**Zorpetzea:** Udalaren zorpetzea 405.291 eurorena zen eta sarrera arrunten % 10 egiten zuen; finantza zama, berriz, % 2 baizik ez du egin. Kopuru honi Udalkutxako itzultzeko diren 269.710 euroak eta sozietate Publikoren zorpetzea gehitu behar zaizkio, 2012an egingarrien ziren aktiboak saldu ostean 3,2 milioi euroren kanpoko finantzaketa beharrezko zuena; honenbestez, Udalaren zorpetze bateratua sarrera arrunten % 98koa da.



**Ondorioa:** Udal Administrazioek egiten dituzten inbertsioen balizko finantzaketa iturriak honako hauek dira: ekitaldi bakoitzean sortzeko gai diren aurrezki garbia, diruzaintza geldikinak eta diru-laguntza bidez edo zorpetze berri baten bidez eskura dezaten kanpoko finantzaketa.

Udalaren sarrera eta gastu arrunten egiturak aztertutako aldiaren aurrezki garbi positiboa erakutsi du, beste erakunde batzuetako diru-laguntzekin batera inbertsio programa apalak finantzatzeko bide eman duena. Diruzaintza geldikin erabilgarria ez da esanguratsua. Azkenik esan behar da zorpetzea baliatzeko aukera agortu egin dela Sozietate Publikoaren izakinak finantzatzeko beharizanaren ondorioz.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## V. URTEKO KONTUAK

### V.1 UDALA

#### 2011-KO EKITALDIAREN AURREKONTU LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

SARRERAK	Eransk.	AURREKONTUA			ESKUBIDE.	KOBRA.		%
		HASIER.	ALDAK.	B.-BETIK.	KITAT.	KOBR.	GABEA	EXEK.
1.- Zerga zuzenak .....	A.2	375	-	375	540	513	27	144
2.- Zeharkako zergak .....	A.2	300	-	300	116	97	19	39
3.- Tasak eta bestelako sarrerak .....	A.2	652	-	652	675	611	64	104
4.- Transferentzia arruntak .....	A.3	2.588	9	2.597	2.591	2.449	142	100
5.- Ondare sarrerak .....	-	10	-	10	6	6	-	60
6.- Inbertsio errealen besterentzea .....	-	562	-	562	-	-	-	-
7.- Kapitalezko transferentziak .....	A.3	513	92	605	192	74	118	32
8.- Finantza aktiboak .....	-	-	351	351	-	-	-	(*) -
9.- Finantza pasiboak .....	A.7	-	-	-	-	-	-	-
<b>DIRU-SARRERAK GUZTIRA</b>		<b>5.000</b>	<b>452</b>	<b>5.452</b>	<b>4.120</b>	<b>3.750</b>	<b>370</b>	<b>(*) 81</b>

(\*) Exekuzioaren % kalkulaterakoan Diruzaintza Geldikina txertatzearen eragina zuzendu da.

Euroak milakotan

GASTUA	Eransk.	AURREKONTUA			OBLIG.	ORDAIN.		%
		HASIER.	ALDAK.	B.-BETIK.	AITORT.	ORDAINK.	GABE	EXEK.
1.- Langileria-gastuak .....	A.4	830	30	860	835	833	2	97
2.- Ondasun arrunten erosk. eta zerb...	A.5	2.694	(12)	2.682	2.513	2.071	442	94
3.- Finantza gastuak .....	A.7	29	-	29	7	7	-	24
4.- Transferentzia arruntak .....	A.6	275	17	292	254	233	21	87
6.- Inbertsio errealak .....	-	892	413	1.305	566	408	158	43
7.- Kapitalezko transferentziak .....	-	-	-	-	-	-	-	-
8.- Finantza aktiboak .....	-	-	-	-	-	-	-	-
9.- Finantza pasiboak .....	A.7	80	4	84	83	83	-	99
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>		<b>4.800</b>	<b>452</b>	<b>5.252</b>	<b>4.258</b>	<b>3.635</b>	<b>623</b>	<b>85</b>
<b>SARRERAK - GASTUAK</b>					<b>(138)</b>			



Herri - Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA		Euroak milakotan			
	ERANSK.	HASIER. ZORRA	KOBR./ BALIOG. ORDAIN.	AZKEN ZORRA	
Zordunak .....	A.8	1.705	(77)	1.430	198
Hartzekodunak .....	-	1.738	7	1.725	6
<b>AURREKONTU ITXIEN EMAITZA</b>			<b>(70)</b>		

AURREKONTUAREN EMAITZA		Euroak milakotan	
Kitatutako eskubideak.....			4.120
Aitortutako obligazioak.....			4.258
<b>INDARREKO AURREKONTUKO ERAGIKETA AURREKONTUZKOEN EMAITZA</b>		<b>(138)</b>	
<b>AURREKO EKITALD. KITATUTAKO AURREKONTU ERAGIKETEN EMAITZA</b>		<b>(70)</b>	
<b>EKITALDIAREN AURREKONTU EMAITZA</b>		<b>(208)</b>	
Finantzaketa desbideratzeak .....			-
Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako gastuak.....			143
<b>DOITUTAKO AURREKONTUAREN EMAITZA</b>		<b>(65)</b>	

DIRUZAINZA GELDIKINA		Euroak milakotan	
Diruzaintza Geldikina 2011.1.1.lean .....			439
Aurrekontuaren emaitza .....			(208)
Huts egindakoen hornidurarako dotaz. aldaketak .....			41
Sarrerren itzulketeng. eta beste hartzekod. bariaz. ....			-
<b>DIRUZAINZA GELDIKINA 2011.12.31-N</b>		<b>272</b>	
Diruzaintza .....			169
Aurrekontuko zordunak (A.8) .....			568
Aurrekontuz kanpoko zordunak (A.8) .....			579
Aurrekontuzko hartzekodunak .....			(629)
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak .....			(107)
Aplikatzeke dauden sarrerak .....			(5)
Kaudimen-gabezietarako hornidurak (A.8) .....			(303)
<b>DIRUZAINZA GELDIKINA 2011.12.31-N</b>		<b>272</b>	
Finantzaketa atxikia duten gastuetarako Diruzaintza Geldikina.....			-
<b>GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZA GELDIKINA</b>		<b>272</b>	
<b>ZORPETZEA 2011.12.31-N</b>		<b>405</b>	



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

EGOERAREN BALANTZEA 2011 ETA 2010-EKO ABENDUAREN 31-N Euroak milakotan

AKTIBOA	Eranskina	2011	2010	PASIBOA	Eranskina	2011	2010
<b>IBILGETUA</b>		<b>24.461</b>	<b>23.895</b>	<b>FUNTS PROPIOAK</b>		<b>24.327</b>	<b>23.845</b>
Erabilera orokorrerakoa.....		12.186	11.826	Ondarea .....		5.573	5.573
Ibilgetu ezmateriala.....		513	513	Aurreko ekitaldietako emaitza .....		18.272	16.329
Ibilgetu materiala.....		11.762	11.556	Ekitaldiaren emaitza.....		482	1.943
<b>ZORDUNAK</b>		<b>273</b>	<b>1.369</b>	<b>HARTZEKODUNAK EPE LUZERA</b>	A.7	<b>406</b>	<b>402</b>
Indarreko aurrekontua .....	A.8	370	1.513				
Aurrekontu itxiak.....	A.8	198	192				
Entitate publikoak.....	A.8	8	8	<b>HARTZEKODUNAK EPE LABURRERA</b>		<b>741</b>	<b>1.954</b>
Kaudimengabez. zuzkid. ....	A.8	(303)	(344)	Indarreko ekitaldiaren aurrek. ....		623	-
				Ekitaldi itxien aurrek.....		6	1.738
<b>FINANTZA KONTUAK</b>		<b>740</b>	<b>937</b>	Kreditu eragik. zorrak .....	A.7	-	87
Aldi bat. fin. inb.- Zubiaur ktu.kte. ...	A.8	250	250	Entitate publiko hartzekodunak .....		63	66
Eratutako bermeak eta gordailuak ....	A.8	321	520	Jasotako bermeak eta gordailuak...		42	56
Diruzaintza		169	167	Bestelako txikiago batzuk .....		7	7
<b>AKTIBOA GUZTIRA</b>		<b>25.474</b>	<b>26.201</b>	<b>PASIBOA GUZTIRA</b>		<b>25.474</b>	<b>26.201</b>

2011 ETA 2010-EKO EKITALDIKO GALERA-IRABAZIEN KONTUAK Euroak milakotan

GASTUAK	2011	2010	SARRERAK	2011	2010
Langileria-gastuak.....	896	933	Zerga zuzenak .....	540	374
Kanpo zerbitzuak eta tributuak ...	2.452	2.555	Zeharkako zergak .....	116	372
Emand. transf. eta dirulag.....	254	230	Zerbitzu ematea.....	577	632
Kaudimengab. zuzkid. aldak. ....	(41)	333	Jasotako transf. eta dirul. ....	2.782	4.584
			Kudeaketa arrunteko bestel. sarr.....	104	55
<b>USTIAPENAREN MOZKINA</b>	<b>558</b>	<b>1.966</b>	<b>EMAITZA FINANTZARIO NEG.</b>	<b>6</b>	<b>13</b>
			<b>AURREKO EKITALDIETAKO GALERAK</b>	<b>70</b>	<b>10</b>
<b>EKITALDIKO MOZKINA</b>	<b>482</b>	<b>1.943</b>			



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## V.2 ZUBIAUR ERAIKUNTZAK, SA

EGOERAREN BALANTZEA 2011 ETA 2010-EKO ABENDUAREN 31-N				Euroak milakotan			
AKTIBOA	Eranskina	2011	2010	PASIBOA	Eranskina	2011	2010
<b>IBILGETUA</b>		<b>1</b>	<b>2</b>	<b>FUNTS PROPIOAK</b>		<b>1.601</b>	<b>1.440</b>
				Kapital soziala.....		60	60
				Legezko erretserba.....		12	12
				Aurreko ekitaldietako emaitza.....		1.368	1.371
				Ekitaldiaren emaitza.....		161	(3)
				<b>EPE LUZERAKO ZORRAK</b>	<b>A.7</b>	<b>8.086</b>	<b>4.216</b>
<b>IZAKINAK</b>		<b>12.524</b>	<b>8.278</b>	<b>PASIBO ARRUNTA</b>		<b>5.216</b>	<b>3.429</b>
Orubeak eta amaitutako eraik..... A.10		829	859	Hornitzaileak (Udal. lursailak)..... A.8		1.648	1.648
Abian dagoen urbaniz.-Hegoalde..... A.10		714	661	Askotariko hartzekodunak.....		671	355
Abian dagoen sustap.-Hegoalde..... A.10		10.981	6.758	Udalaren kontu korrontea.....		250	250
<b>ZORDUNAK</b>		<b>176</b>	<b>136</b>	Hegoaldeko erosleei aurrerakinak..... A.10		1.975	491
Hegoalde urbaniz. kuotak..... A.10		128	128	Urbanizazio kuoten aurrerakinak..... A.10		508	508
Foru Ogasun zorduna.....		48	8	Jasotako gordailuak-urbaniz. kuotak.... A.10		128	128
<b>BERMEAK ETA GORD. E/LAB.</b>	<b>A.10</b>	<b>2.066</b>	<b>549</b>	Ezartzeke dauden kontu-sailak.....		33	45
<b>DIRUZAINZTA</b>		<b>136</b>	<b>120</b>	Entitate publikoak.....		3	4
<b>AKTIBOA GUZTIRA</b>		<b>14.903</b>	<b>9.085</b>	<b>PASIBOA GUZTIRA</b>		<b>14.903</b>	<b>9.085</b>

2011 ETA 2010-EKO EKITALDIKO GALERA-IRABAZIEN KONTUAK				Euroak milakotan			
GASTUAK	Eranskina	2011	2010	SARRERAK	Eranskina	2011	2010
Langileria-gastuak..... A.4		39	45	Negozio zifr. zenbateko garbia.....		201	-
Hornidurak..... A.10		3.985	1.280	Izakinen gehitzea..... A.10		4.246	1.488
Bestelako ustiapen gastuak.....		117	106	Beste emaitza batzuk.....		3	(1)
Amortiz. Ibilgetua.....		1	1				
<b>USTIAPENAREN MOZKINA</b>		<b>308</b>	<b>55</b>	<b>EMAITZA FINANTZARIO NEG.</b>		<b>147</b>	<b>58</b>
<b>EKITALDIKO MOZKINA</b>		<b>161</b>	<b>-</b>	<b>URTEALDIAREN GALERA</b>		<b>-</b>	<b>3</b>

2011 ETA 2010-EKO EKITALDIEN ONDARE GARBIAREN ALDAKETEN EGOERA				Euroak milakotan		
KONTZEPTUA	KAPITAL SOZIALZ	LEGEZKO ERRETS.	GELDI- KINA	EKITALDIAREN EMAITZA	GUZTIRA	
<b>HASIERAKO SALDOA, 2010 URTEA</b>	60	12	1.419	(48)	1.443	
2010eko emaitza.....	-	-	-	(3)	(3)	
Ondare garbiaren bestelako aldaketak.....	-	-	(48)	48	-	
<b>2010-EKO URTEAREN AZKEN SALDOA</b>	60	12	1.371	(3)	1.440	
2011ko emaitza.....	-	-	-	161	161	
Ondare garbiaren bestelako aldaketak.....	-	-	(3)	3	-	
<b>2011-KO URTEAREN AZKEN SALDOA</b>	60	12	1.368	161	1.601	



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## VI. 2012-KO AURREKONTUAREN ALEGAZIOEN ANALISIA

Udalaren eta bere Sozietatearen 2012ko aurrekontuak, behin-behinean 2012ko uztailaren 16an onartu zenak, kapituluaren arabera honako xehapen hau erakusten duen:

2012-KO AURREKONTUA: UDALA		Euroak milakotan	
SARRERAK	Zenbatekoa	GASTUAK	Zenbatekoa
Zerga zuzenak .....	524	Langileria-gastuak .....	860
Zeharkako zergak .....	150	Ondasun arrunten erosk. eta zerb. ....	2.598
Tasak eta bestelako sarrerak .....	663	Finantza gastuak .....	10
Transferentzia arruntak .....	2.558	Transferentzia arruntak .....	215
Ondare sarrerak .....	105		
Inbertsio errealeen besterentzea .....	2	Inbertsio errealak .....	264
Transferencias de capital .....	90		
Finantza pasiboak .....	36	Finantza pasiboak .....	181
<b>DIRU-SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>4.128</b>	<b>GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>4.128</b>

2012-KO AURREKONTUA: ZUBIAUR ERAIKUNTZAK, SA		Euroak milakotan	
SARRERAK	Zenbatekoa	GASTUAK	Zenbatekoa
Tasak eta bestelako sarrerak .....	8.902	Langileria-gastuak .....	31
Ondare sarrerak .....	1	Ondasun arrunten erosk. eta zerb. .... (*)	8.653
		Finantza gastuak .....	180
		Finantza aktiboak .....	39
<b>DIRU-SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>8.903</b>	<b>GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>8.903</b>

(\*) amaitutako produktuen (etxebizitzak) 7,5 milioi euroren izakin murrizketa barne hartzen du.

2012ko abuztuaren 21eko idatzi bitartez, onartutako aurrekontuei alegazioak jarri zitzaizkien, batik bat, aurrekontu egonkortasunaren araudia urratzen zutela iruditzen zitzaielako. Aurrekontuaren izapideari eta horren edukiari buruzko beste hainbat alderdi ere alegazio-gai izan zituzten. 2012ko irailaren 11ko Osokoak alegazioa ezetsi zuen baina atal horrek berak abenduaren 11n mozioa onartu zuen HKEEek aldeak azter zitzaiz.

Epaitegi honek 2012rako aurrekontuaren espedientea eta izapidean sortutako dokumentazioa aztertu ditu.

Eztabaida iturri nagusia aurrekontu egonkortasunaren araudia betetzeari dagokiona da; horren aurrean esan behar da 2012an lege aldaketa handiak egin zirela eta aurreko araudia baliogabetu zuen LOEPSF onartu zela; ordea, indarrean eutsi zitzaion 1463/2007 EDri, zeinak zehazten baitu erakundearen sailkapena Estatistika Institutu Nazioanaren egitekoa dela, EAANrekin batean (3. art.). Azken arau honen 4. eta 6. artikuluek egonkortasun araudiaren obligazioak zehazten dituzte adieraziaz toki erakundeek euren aurrekontu bateratuak onartu, egikaritu eta kitatu behar dituztela, urtero jomugan jarritako helburuetara egokituz eta kalkuluak finantzaketa gaitasuneko terminoetan eginez, NLKESk ematen dituen definizioei jarraiki. Toki erakundearen mendeko diren merkataritza sozietateek euren aurrekontuak oreka irizpidearen arabera onartu, egikaritu eta kitatu behar dituzte



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

(1463/2007 EDren 16.2 art.) Hori betetzen delako ebaluazioa Artekaritzari dagokio 75.000 biztanletik beherako udaletan eta honek Udaltatzari zuzendutako toki erakundeari eta mendeko sozietateei buruzko txostena egin behar du. Hala egin ezean, Udaltatzak Bizkaiko Foru Aldundira bideratuko du. 1463/2007 EDk kontrolerako beste baliabide batzuk aurreikusten ditu, izan ere TEFKZNri aurrekontuak, kitapenak eta kontu orokorrak igortzeko eskatzen baitu (29. eta 30. artikulua); baita kontrol berriazkoa ere, berriz zorpetzeko baimenak eskatu behar baitira.

2012ko aurrekontua dela eta, Udal artekaritzak soil-soilik Udalari buruzko aipatutako txosten derrigorrezkoa egin zuen eta adierazi zuen Zubiaur Eraikuntzak, SA nagusiki merkatuko diru-sarrera bidez finantzatzen dela eta honenbestez, ez dagokiola bateratzea. Abuztuaren 21ean aurkeztutako alegazioan auzitan jarri zen azken alderdi hau adieraziaz Zubiaur Eraikuntzak, SA EAANK sailkatu behar zuela eta betekizun hori gauzatu gabe zegoela. Udalaren Idazkari-Artekariak txostena idatzi zuen adieraziaz izapideak abiarazi zirela EAANK horren gaineko iritzia eman zezan eta gaineratu zuen, sailkapenak sailkapen, Aurrekontuak ederki betetzen zituela egonkortasun printzipioak, erakundeak banaka nahiz bateratuta hartuta. Izapide horiek EAANren 2013ko apirilko txosten batean gauzatu dira, zeinak Zubiaur Eraikuntzak, SA finantzazkoak ez diren sozietateen sektorean sailkatzen duen; honenbestez, Udala bereiz aztertu behar da, aurrekontu egonkortasunaren araudiaren ondorioetarako. EAANK aintzat hartu duen ezaugarri nagusia da sozietateak kostuen % 50 baino gehiago salmenta bidez finantzatzen duela. Txosten hau eskuraturik, mahairatutako alegazioari erantzun ematen zaio eta Artekaritzak egindako interpretazioa bermatzen da.

Artekaritzak 2012ko aurrekontuari buruz egindako txostenari dagokionez adierazi behar da aurrekontuaren sarrera-aurreikuspenak zuzendu egin behar lireratekeela egiazko kobrantzen aurreikuspenekin eta txostenari berriazko atala gehitu behar litzaiokeela Udal Sozietateari dagokionez.

Esan behar da 2012an amaitu zela abian zen sustapenaren eraikuntza eta Sozietate Publikoaren aurrekontuan salmenta handiak aurreikusi zirela, 8,9 milioi euroren diru-sarrerak balioetsiz; aldiz, azken obra ziurtagiriak eta bestelako gastu orokorrak 1,4 milioi euroan balioetsi ziren; honenbestez, ekitaldi horretako aurrekontuak ez du finantza gaitasunari dagokionez inongo arazorik erakusten, nahiz komeni den aurreko atal batean izakinak gauzatzearen balioari buruz esandakoa gogora ekartzea, izan ere datozen urteetan arazoak eragin litzakete eta Sozietatera funtsen ekarpena egitera behartu eta honenbestez, litekeena da sailkapena aldatzea.

2012ko abuztuaren 21eko alegazioen idatzia beste bi alderdiri zegokion:

- Langileen eranskina osagabea: Eranskinak lanpostu guztiak zehazten zituen eta bakoitzari zegokion taldea, lanpostu-mailako osagarria eta berriazko osagarriaren zenbatekoa aitortzen zituen, EFPLren 21. artikulua agindutakoa betez; ordea, gardenagoa litzateke ordainsari kontzeptu guztietan hartzekoen zenbatekoa adieraztea.





Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

- Aurrekontua izapidetzean akatsak: Araudiak (10/2003 FAREN 14. art.) esaten duen guztia da Aurrekontua Udaltzari igorriko zaiola onetsi, zuzendu edo itzultzeko Artekariak egindako txostenarekin batean, aurretik arauko izapidea bideratuz. 2012rako Aurrekontuak dagokion Artekariak txostena jasotzen du eta 2012ko ekainaren 29ko Kontuen Batzordeak irizpena eman zuen; honenbestez, legezko betekizunak betetzen ditu. Zuzenketei dagokienez, zatizko bat aurkeztu zen Kontuen Batzordean atzera bota zena finantzarioki bidera ezina zelako eta uztailearen 10eko Udaltzari aztertu zena, horren gaineko botaziorik egin gabe, bidera ezina zela baitetsiko zuen Artekariaren txostenik ez zegoelako. Ondoko Udaltzari, aurrekontua onartu zuena, ez zen horren gaineko bozketarik egin, Artekariak aurkako txostena egin zuela aitzakia hartuta. Honi dagokionez aunitz molde daude zuzenketei bideragarritasuna egiaztatzeko eta aukeretan bat Udaltzari aztertu aurrean Artekariak txostena egitekoa da.

